

Hezkuntza- arrakasta eta inklusiorako gakoak: eskola- hizkuntzaren garapenerako ebidentziak eta tresnak



Eskola hizkuntzaren ezagutza maila funtsezkoa da hezkuntza arrakastarako, bai sozializazio prozesuan, bai garapen akademikoan. Horregatik, Uda Ikastaro honek eskola hizkuntzaren garapena bultzatzen dituzten faktoreen eta praktiken azterketa izango du ardatz.

Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kod. H02-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Hezkuntza erronkek bilakaera nabarmena izan dute globalizazioaren, migrazio mugikortasunaren eta teknologia berrien aurrerapenen eraginez. Ikasleen profila gero eta anitzagoa denez, horien beharrak eta eskolek dituzten erronkek ere aldaketa esanguratsuak izan dituzte. Hori dela eta, eskolek kalitatezko hezkuntza, inklusioa eta ekitatea bermatzeko ardura dute, izan ere, arrakasta akademikoa sustatzeaz gain, ikasleak eguneroko bizitzako erronkei arrakastaz aurre egiteko prestatzen dituzten oinarritzko konpetentziak garatuz. Testuinguru horretan, eskola hizkuntzaren ezagutza maila funtsezkoa da hezkuntza arrakastarako, bai sozializazio prozesuan, bai garapen akademikoan.

Horregatik, ikastaro honek eskola hizkuntzaren garapena bultzatzen dituen faktore eta praktiken azterketa izango du ardatz, berebiziko garrantzia baitu ikasle guztien eskola arrakasta sustatzeko. Kontuan hartu behar da ikasle askok oztopo linguistiko eta kulturei aurre egin behar izaten dietela; oztopo horiek zailtasunak eragiten dituzte eskolara egokitzeko eta ingurune akademikoarekiko interesa pizteko, eta ondorioz, eskola porrotaren arriskua handitzen dute; bide horretan hezkuntza estrategia inklusibo eta eraginkorrak behar dira.

Horrenbestez, ikastaro honetan konpetentzia eleaniztunaren ikuspegitik, Oinarritzko Hizkuntza Trebetasun Akademikoen (ingelesezt, Core Academic Language Skills edo CALS) garapenari buruzko egungo ezagutza izango da aztergai, izan ere, ikasle guztien eskola arrakastan funtsezko elementu da. Hainbat ikerketak erakutsi dute trebetasun horiek garrantzitsuak direla ikasleek curriculum arlo guztietako informazioa ulertu eta barneratu dezaten.

Testuinguru eleaniztunetan, gaitasun horien garapena Hizkuntzen Trataera Integratua eta Integrala sustatzen duten ikuspegi holistikotik landu daiteke, bai eta translanguaging izenez ezagutzen diren hizkuntza arteko praktika pedagogikoen bidez ere. Eleaniztasunaren inguruko ikerketetan nabarmentzen den kontzeptu horrek, esanahiaren eraikuntza errazten du ikasleen jatorrizko hizkuntza (H1) ikaskuntza baliabide gisa txertatzen baitu. Gainera, translanguagingak zaurgarritasun egoeran dauden ikasleen garapen emozionalean eragin positiboa duela frogatu da testuinguru eleaniztunetan ikasleen ongizatean eta arrakastan laguntzen baitu.

Ikastaro honen helburua da, halaber, hezkuntza komunitate osoaren arteko harremanak sendotzea — bereziki, eskolaren eta unibertsitatearen artean —, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako berrikuntza pedagogikorako gakoak identifikatzeko, ikasle guztien beharrei erantzun asmoz.

Helburuak

Irakurriaren ulermenerako oinarritzko hizkuntza trebetasun akademikoen garapena sustatzeko teoriak eta praktikak ezagutzea: Irakasleei eta hezkuntza komunitateari estrategia berritzaileetan gaitzen laguntzea, translanguaging pedagogikoa kasu, ikasleei testuetatik abiatuta modu eraginkorrean ulertzen eta ikasten lagunduko dieten funtsezko hizkuntza trebetasunak indartzeko irakurketan.

Hezkuntza inklusioa sustatzen duten ebidentzia zientifikoetan oinarritutako estrategiak ezagutaraztea: Ikasleen lehen hizkuntzak (H1) eta jatorrizko kulturak hezkuntza baliabide gisa aitortu eta erabiliko dituzten jardunbide pedagogikoak inplementatzea, oztopo linguistiko eta kulturei aurre egiteko eta ikasleen eskolako egokitzapena eta inklusioa errazteko.

Eskolen eta unibertsitateen arteko lankidetzak indartzea: Hezkuntza komunitateko eragileen arteko harremanak sendotzea, ikasleen beharrei erantzun dieten eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako esku-hartzeak ezagutu, garatu eta inplementatzeko.

Antolakuntza



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFIA
Y ANTROPOLOGÍA



Lankidetzak



Zuzendaritza



Oihana Leonet Sieso

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Oihana Leonet Sieso. Irakasle Agregatua da Hezkuntza Zientziak sailean (UPV/EHU). Magisteritzan diplomatua (2008) eta psikopedagogian lizentziatua (2011) da. 2018an Hezkuntzako doktoretza lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean UPV/EHU. Gaur egun, nazioartean izen handia duen “Donostia Research group on Education and Multilingualism” (DREAM) ikerketa-taldeko ikertzaile nagusia da. Talde horretan, 2014tik, eleaniztasunaren eta hezkuntzaren arloko ikerketa egin du. Nazioarteko hainbat konferentzian parte hartu du hezkuntzaren, eleaniztasunaren eta hizkuntzen irakaskuntzaren arloan, eta inpaktu handiko nazioarteko aldizkarietan argitaratu du bere lana. Gizarte- eta hezkuntza-inklusioaren arloko Europako zenbait proiektutan ere parte hartzen du, eta arlo horretako kongresuetan parte hartu du eta artikulua idatzi ditu. Gainera, Estatuko Ikerketa Agentziarekin lankidetzan aritzen da ikerketa-proiektuen ebaluazioan, eta nazioarteko aldizkarietarako ikerketa-artikuluetakoa ikuskatzaile lanak egin ditu.



Eider Saragueta Garrido

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, irakasle eta ikertzailea

Eider Saragueta Hezkuntza Zientziak saileko irakasle laguntzaile doktore eta ikertzailea da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (UPV/EHU). Nazioarteko hainbat kongresutan parte hartu du eta estatuko nahiz nazioarteko aldizkarietan argitaratu du bere lana. Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak egindakoa da, Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna eta Eleaniztasuna eta Hezkuntza Nazioarteko Unibertsitate Masterra (EMME) egindakoa Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). 2019ko udan “Translanguaging hezkuntza-eleaniztunean. Ikerketa etnografiko bat” izeneko tesia aurkeztu zuen Jasone Cenoz katedradunak zuzenduta. Bere ikerketa ildo nagusiak: Lehen Hezkuntzako ikasleen euskararen erabilera, horien identitatea eta gela barruan gertatzen den translanguaging-a aztertzea. Hori guztia, gela barneko etnografiaren ikuspegitik.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-16 ARTE
Orokorra	30,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	30,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	30,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-16 ARTE
Orokorra	30,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	30,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	30,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa